

# Emakume eta gizonen berdintasunerako **Euskal Hipika Federazioaren** Plana



## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	3
2. Analisia .....	4
2.1 Egitura.....	4
2.2 Komunikazio arloa.....	9
2.3 Kirol arloa .....	12
2.4 Baliabideak.....	20
3. Plana.....	21
3.1 Egitura.....	21
3.2 Komunikazio arloa.....	22
3.3 Kirol arloa .....	23
4. Adierazleak.....	24
5. Kronograma .....	25

## TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

### TAULAK

1. Zuzendaritza-batzordeko osaera sexuaren arabera .....	4
2. Batzarreko osaera sexuaren arabera.....	6
3. Batzordeetako osaera sexuaren arabera.....	7
4. Lizentzia kopuruaren eboluzioa maila eta sexuaren arabera .....	13
5. Teknikari lizentzien eboluzioa sexuaren arabera .....	16

### IRUDIAK

1. Emakume eta gizonen portzentaia Zuzendaritza-batzordean .....	4
2. Emakume eta gizonen portzentaia Batzarrean .....	7
3. Emakume eta gizonen portzentaia federazio-batzordeetan.....	8
4. Euskal Hipika Federazioko web orriaren aurkezpen orria .....	10
5. Kirol lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2007/2008 .....	12
6. Kirol lizentzien eboluzioa sexuaren arabera 2003/2004-2006/2007.....	12
7. Emakumeen kirol lizentzien eboluzioa mailaren arabera .....	13
8. Gizonezkoen kirol lizentzien eboluzioa mailaren arabera .....	14
9. Kirol lizentzien banaketaren eboluzioa mailaren arabera.....	14
10. Teknikarien lizentzien portzentaia 2007/2008.....	15
11. Teknikarien lizentzien eboluzioa sexuaren arabera .....	16
12. Kirol-epaileen lizentzien portzentaia 2007/2008.....	17
13. Kirol-epaileen lizentzien eboluzioa 2002/2003-2006/2007.....	17
14. Kirol-epaileen lizentzien eboluzioa sexuaren eta diziplinaren arabera.....	18

## 1. Sarrera

Euskal Autonomi Erkidegoak badu jada berdintasunerako politika publikoetan ibilbide bat egin. 1988an Emakunde sortu zenetik gaur arte, Gobernu Kontseiluak emakume eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboko lau plan onartu ditu eta hauetan guztietan kultura eta kirola esku-hartzeko eremuak bezala ageri dira.

Era berean, Euskadiko kirol araudietan emakume eta gizonen berdintasunerako egiten diren aipamenak ugartuz doaz, emakumeak kirol jardueran hastearen garrantzia azpimarratzeaz gain (Kirolaren Euskal Legea 14/1998), kirol federazioei emakume eta gizonen berdintasunerako *ekintza positiboko planak egin, onartu eta burutu* behar izatea ere aipatzen du (Euskal Kirol Federazioen Dekretua 16/2006, XIV Izenburua, 169. artikulua).

2007ko ekainean Eusko Jaurkaritzak euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen berdintasuna ziurtatuko duen proiektua abian jarri zuen eta proiektuaren ardatza federazioetan Berdintasunerako Planak egitea da, hain zuzen ere. Euskal Hipika Federazioak berdintasuna sustatzeko borondatea azaldu du berdintasun plana burutzeko nahiaren bidez.

Euskal federazioen esparruan pausu garrantzitu bat da honako hau, euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko helburuarekin aro berri bati hasiera ematen baitzaio.

## 2. Analisia

### 2.1 Egitura

#### Zuzendaritza-batzordea

Egungo Euskal Hipika Federazioko Zuzendaritza-batzordea 13 pertsonek osatzen dute, ondorengo taulan zehazten den bezala:


1 Taula. Zuzendaritza-batzordeko osaera sexuaren arabera

KARGUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Presidentetza		1
Presidenteordetza	1	2
Diruzaintza		1
Klubetako ordezkari		1
Kirol-epaile eta teknikarien ordezkari		1
Zaldizko/Amazonen ordezkari		1
Eskola Kiroleko ordezkari		1
Pottoken ordezkari		1
Bokalak	1	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>11</b>

ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Zuzendaritza-batzordea osatzen duten pertsonen artean, emakumeen (2) kopurua gizonena (11) baino dezente txikiagoa da, %15a emakumeak izanik eta %85a gizonak.

1 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia Zuzendaritza-batzordean



ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Estatutu berrietan Zuzendaritza-batzordeko kide kopurua 10 pertsonetara gutxitzea aurreikusten da.

Zuzendaritzan dagoen emakume kopurua txikia den arren, presidenteordetzako hiru karguetatik bat emakume batek du, Arabako Federazioko presidenteak. Hala ere, derrigorrezkoa da lurraldekako federazioetako presidenteak Euskal Federazioko Zuzendaritza-batzordean kargu bat izatea (Euskadiko kirol federazioen 16/2006 Dekretua).

Euskal Hipika Federazioko (EHF) presidentearen iritziz, Jose Ignacio Merladeten iritziz, zaila da hipikako ezagupen orokorrak dituen pertsona bat aurkitzea baina, hala ere, onartzen du Zuzendaritza-batzordean emakumeen partaidetza handitu beharra dagoela; arazo handiena emakumeek egitura honetan parte hartu nahi izatea dela uste du. Bestalde, presidentearen iritziz emakumeek ez dute Zuzendaritza-batzordeko kide izan behar emakumeak izateagatik baizik eta dagozkien funtzioak betetzeko baliozko pertsonak direlako.

Era berean, emakume kopuru handi batek lan-batzordeetan lanean diharduela gaineratzen du eta, azken finean, erabaki-hartzeetan parte hartzen dutela, erabaki gehienak batzorde hauetan hartzen baitira. Hala ere, lan-batzordeetan partaidetza baldin badute, organo erabakitzaileetan ere presentzia izan beharra dutela adierazten du.

2007an sartu zen bokal bat izan ezik, beste kide guztiak beren karguan 2005a geroztik daude. Zuzendaritza-batzordearen adineko batezbestekoa 50 urtekoa da, 32 eta 65 adin-tartearen barnean (zaldizko eta amazonen ordezkaria eta presidentea, hurrenez hurren).

Zuzendaritza-batzordean ez du inork ordain saririk jasotzen egiten duen lanagatik eta presidentea da, astean 25 orduko ardurarekin, Zuzendaritzatik federazioari ordu gehien eskaintzen dizkion pertsona. Beste 12 kideetatik seiak federazioari

astean ordu bete eta bost ordu artean eskaintzen dizkiete eta beste 6ak ez diote, aldiz, ezerrez.

Zuzendaritza-batzordean dauden karguetatik ordain saria zeinek jaso dezakeen eta zeinek ez Estatutuetan zehazten da eta, kasu honetan, idazkaritzako eta diruzaintzako kargua duten pertsonak jaso ahal izango lukete.

## Batzarra

Euskal Hipika Federazioko egungo batzarra 17 pertsonak osatzen dute, 8 emakumek eta 7 gizonak.

**2 Taula. Batzarreko osaera sexuaren arabera**

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Kirolarien estamentua	1	2
Kiro-epaile eta teknikarien estamentua		4
Kluben ordezkariak	7	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>9</b>


**ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa**

Kasu honetan, emakume eta gizon kopurua orekatuagoa da, %47a eta %53a, hurrenez hurren.

Kirolarien estamentuan kirolariak ordezkatzeko emakume gutxiago dago gizonak baino, emakumeen lizentzia kopurua gizonena baino handiagoa izan arren. Kirol-epaile eta teknikarien estamentuan, ordea, ez dago emakumerik, teknikarien %64a eta kirol-epaileen %44a emakumeak izan arren. Federazioko presidenteari hau zergatik gertatzen den galdetzean, inplikatzeko prest dauden emakumeak aurkitzea zaila dela baieztatzen du. Bestalde, datu hauek kirol modalitate honetako egitura ezberdinetan dagoen oreka agerian usten dute.

Orokorrean, Batzarrean emakumeen partaidetza %47koa da eta gizonena, aldiz, %53koa.

## 2 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia Batzarrean



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Estatutu berrietan Batzarreko kideen kopurua 20 pertsonetara handitu da, honenbestez, legealdi honetan aurrekoan baino 3 pertsona gehiago egongo dira. Egungo Batzarra 2.005ean izendatu zen.

Batzarrean dauden pertsonen adineko batezbestekoa 47 urtekoa da, 32 eta 65 adin-tartearen barnean.

Batzarrean 10 elkarte daude ordezkaturik, 6 Bizkaikoak, 2 Arabakoak eta 2 Gipuzkoakoak.

### Federazioko beste batzordeak

Batzordeen kasuan emakumeen partaidetza Zuzendaritza-batzordekoa eta Batzarrekoa baino handiagoa da. Batzordeetan 10 emakumek eta 15 gizonek hartzen dute parte.

## 3 Taula. Batzordeetako osaera sexuaren arabera


	EMAKUMEAK	GIZONAK
Irakaskuntzako batzordea	1	3
Ponien batzordea	1	3
Raid-en batzordea	1	4
Salto-oztopoen batzordea		4
Doma Klasikoko batzordea	5	
Diziplinarako batzordea	2	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>10</b>	<b>15</b>

### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa



Orokorrean, federazioko batzordeetan emakumeek duten partaidetza %40koa da eta gizonena, ordea, %60koa.

### 3 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia federazio-batzordeetan



#### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

#### Langileak

Gaur egun, federazioan lan kontratua duen pertsona bakarra administrazio lanetan aritzen den emakume bat da; lanaldi osoz dihardu lanean eta kargu honetan 11 urte daramatza.

## 2.2 Komunikazio arloa

### Hizkuntza idatzia

Azterturiko dokumentazioan (gutunak, posta elektronikoak, inprimakiak, lehiaketen oinarriak), orokorrean, maskulinoaren erabilpena nagusitzen da:

- *El jinete puede optar ...*(inprimakia)
- *Autorizo a mi hijo...* (inprimakia). Hala ere, euskaraz *seme/alabari* aipatzen da.
- *Datos del propietario* (zaldiko urteko lizentzia)
- *Delegado federativo* (lehiaketen akta)
- *Jinetes, caballos, jueces, veterinarios, delegado federativo,...* (Raid-eko araudia)

Era berean, maskulinoaren erabilera, “*delegado de la F.V.H.: Arantza Erzilla*” bezalako kasuetan antzematen da, hau da, emakumea dela jakin arren, bere kargua maskulinoan idaztea, hizkuntzaren erabilera inkongruentea bat eginez.

Hala eta guztiz ere, posta elektronikoz bidalitako idatzi batzuetan @-ren (*estimad@s amig@s*) erabilera aurkitu da. Zeinu hau ez da ikur lingüistiko bat eta izaera informaleko dokumentuetan edo posta elektronikoetan azken baliabide bezala erabili daitekeen arren, ez da gomendagarria izaten.

Bestalde, berdintasunean oinarritutako hizkuntzan idatzitako inprimaki bat aurkitu da:


- *Examinador/a*
- *Jinetes y amazonas*

Azkenik, Estatutuei dagokienez, maskulinoaren (*jueces, presidente*), bikoizketaren (*las y los técnicos, técnicos y técnicas, jueces y juezas, las y los representantes*) eta hitz generikoen (*las personas que forman...*) erabilpenak antzematen dira.

## Irudiak

Web orriko aurkezpen orria neutroa da irudi nagusiei dagokienez, zaldi baten hankak azaltzen baitira.

### 4 Irudia. Euskal Hipika Federazioko web orriaren aurkezpen orria



ITURRIA: [www.fvh.org](http://www.fvh.org)

Era berean, eskubiko argazkietan zaldizkoak nahiz amazonak azaltzen dira.

## Beste zenbait gauza

Web orriko hizkuntza orokorrean neutroa da eta, menu nagusian, gainera, berdintasunean oinarritutako hizkuntza erabiltzen da (*jinetes y Amazonas*). Hala eta guztiz ere, atal batzuetan maskulinoaren erabilera aurki daiteke, esaterako, salto-oztopoen diziplinari dagokion orrian zaldizkoak bakarrik aipatzen dira.


Bestalde, euskarazko web orria ez da aztertu, momentu honetan eraikitzen ari baitira.

## 2.3 Kirol arloa

### Kirolariak

Gaur egun Euskal Hipika Federazioak guztira 2.039 lizentzia ditu, 1.131 emakumeei dagozkie eta 908 gizonei. Gizonezkoenak baino emakume lizentzia gehiago dituen federazioetako bat da, kasu honetan, lizentzien %55a emakumeenak eta %45a gizonenak.


#### 5 Irudia. Kirol lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2007/2008



#### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Emakume eta gizonen lizentzia kopurua ez da asko aldatu azken lau denboraldietan, azken bi denboraldietan zertxobait igo dela dirudien arren.

#### 6 Irudia. Kirol lizentzien eboluzioa sexuaren arabera. 2003/2004-2006/2007



#### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Lizentzien banaketa mailen arabera aztertuz gero, agerian geratzen da gizonak nagusiak direnean hasten direla kirol hau egiten eta nesketan, aldiz, eskola kirolek abiatuta partaidetza handiago bat sumatzen da.


#### 4 Taula. Lizentzien eboluzioa maila eta sexuaren arabera

DENBORALDIA	KADETEAK			JUBENILAK			SENIORRAK			GUZTIRA		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
2002-2003						280			1.382			1.662
2003-2004	160	65	225	91	54	145	773	682	1455	1024	801	1825
2004-2005	138	39	177	92	39	131	729	659	1388	959	737	1696
2005-2006	176	55	231	115	35	150	870	796	1666	1161	886	2047
2006-2007	145	52	197	96	29	125	890	827	1717	1131	908	2039

ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa<sup>1</sup>

Federazioko presidentearen iriztiz, nesketan kadete mailatik jubenil mailara igarotzean ohikoa izaten da neskek denbora faltagatik, ikasketengatik edo beren denbora librea bikotearekin edo lagunekin igaro nahi dutelako kirol hau uztea. Bestalde, hipika barnean sortzen diren bikoteak, normalki jarraitu egiten dute.

#### 7 Irudia. Emakumeen kirol lizentzien eboluzioa mailaren arabera




ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

<sup>1</sup> Eskola adineko neska-mutilak hipikan ezin dira federatu 16 urte bete arte, hortaz federazioak *kirol txartelak* egiten dizkiete. 2007 urtean guztira, mutilen 514 eta nesken 1.327 txartel egin zituzten.

Bi irudietan ikus daitekeen bezala, lizentzia kopuru handiena, emakume nahiz gizonetan, senior mailan aurki daiteke. Jose Ignacio Merladeten aburuz, gaztaroan hipika utzitako neska asko adin honekin berriro bueltatzen dira, behin familia egitura sortu ondoren.


### 8 Irudia. Gizonen kirol lizentzien eboluzioa mailaren arabera



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Bai emakume eta bai gizonetan lizentzia kopuru gehien senior mailan egotea azken lau denboraldietan ikus daitekeen tendentzia nagusia da.

### Irudia 9. Kirol lizentzien banaketaren eboluzioa mailaren arabera



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa


Dirudenez, hipikan tradizio familiarrez hasten omen da gehienetan, zaldiari eta ingurugiroari zaion maitasunagatik. Senior mailan beste mailetan baina lizentzia gehiago egotea familia eta hipikaren artean dagoen harremanaren ondorio izan daiteke; astebukaeretan familiarekin zaldian ibiltzera joateko ohitura egon ohi da.

Federazioko lizentzia guztietatik (2.039), 700 lehiaketako lizentziak dira, bai autonomi erkidego mailakoak, bai estatu mailakoak; beste lizentziak aisialdikoak dira. Honenbestez, presidenteak argi du aisialdiko izaera duen kirol praktika sustatu beharko litzatekeela, federazioaren inguruan dauden pertsonen beharrak asetzeko. Lizentziaren kostua 56€ eta 146€ artekoa da, izaeraren arabera (autonomi erkidego mailakoa, estatu mailakoa edo aisialdikoak).

### Teknikariak

2007/2008 denboraldian Euskal Hipika Federazioak guztira 45 teknikari lizentzia igorri ditu, horietatik 29 emakumeenak (%64a) eta 16 gizonenak (%36a).

#### 10 Irudia. Teknikarien lizentzien portzentaia 2007/2008



ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa



Hala eta guztiz ere, teknikari lizentzia kopurua aldatu egin da azken urteotan.


### 5 Taula. Teknikari lizentzien eboluzioa sexuaren arabera

DENBORALDIA	G	E	GUZTIRA
2002-2003	11	8	19
2003-2004	11	9	20
2004-2005	18	11	29
2005-2006	18	11	29
2006-2007	29	16	45

ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Azken bost denboraldietan teknikari lizentziak, bai emakumeenak eta baita gizonenak ere, pixkanaka handitzen joan dira.

### 11 Irudia. Teknikarien lizentzia kopuruaren eboluzioa sexuaren arabera




ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

### Kirol-epaileak

Gaur egun Euskal Hipika Federazioak 34 kirol-epaile lizentzia ditu, horietatik 15 emakumeenak dira (%44) eta 19 gizonenak (%56).


## 12 Irudia. Kirol-epaileen lizentzia kopuruaren portzentaia 2007/2008



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

2004/2005 eta 2005/2006 denboraldietan kirol-epaileen lizentzietan beherakada txiki bat antzeman zen arren, gaur egun duela lau urteko kirol-epaile kopuru berbera dago.


## 13 Irudia. Kirol-epaileen lizentzia kopuruaren eboluzioa 2002/2003-2006/2007



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Hala eta guztiz ere, kirol-epaileen lizentzia diziplinen arabera aztertzen bada zenbait ezberdintasun antzeman daitezke. Doma klasikoan emakumeak bakarrik (5) daude eta oztopo-saltoen diziplinan, aldiz, gehienak gizonak dira (10 gizon eta emakume 1).

## 14 Irudia. Kirol-epaileen lizentzien eboluzioa sexuaren eta diziplinaren arabera



### ITURRIA: Euskal Hipika Federazioa

Iraultetaren kasuan, pertsona bakar bat dago, gizon bat, eta Raid-ean, ordea, 8 gizon eta 9 emakume. Honenbestez, azken datu honek, Raida kirol-epaile kopuru orekatuena duen diziplina dela agerian uzten du.

Federazioko presidentearen iritziz, kirol-epaileen espezializazioa kirol praktikarekin zuzenki harreman dago. Doman, esaterako, lizentzia gehienak emakumeenak dira (%75a guxti gorabehera) eta horrexegatik esan ohi da emakumeak diziplina honetan gizonak baino hobeto moldatzen direla. Izan ere, gutxiengo diziplina bat izatetik, azken urteotan eta emakumeei esker, espezializaio handien jasan duen diziplina da.

Bestalde, Raid-a diziplina gogorra da eta partaidetza antzekoa da emakumeetan nahiz gizonetan<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Diziplinen araberako kirol lizentziak ezin izan dira lortu, ondorioz, balorazio hauek federazioko presidentearen iritzian oinarritzen dira.

## Lehiaketa sistema

Gizonak eta emakumeak hipikan batera lehiatzen dira eta saria lehenengo postuan gelditu denak irabazten du, gizona nahiz emakumea izan. Egun federazioak ez du lehiaketetako partaidetzaren azterketa zehatzik egiten.

## 2.4 Baliabideak

Gaur egun Euskal Hipika Federazioan ez daude diru-laguntzak jasotzeko irizpideak ezarrita. Orokorrean, lehiaketetan lortutako postuaren arabera edo federazioa estatu mailan ordezkatzegatik saritzen dituzte zaldizkoak eta amazonak.

### 3. Plana

#### A. Egitura

HELBURUA	
Emakumeen partaidetza progresiboki areagotu EHFko iritzi-emate eta erabakitze esparruetan	
ESTRATEGIAK	A.1 Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean eta 2008ko urtarrilaren 28ko hauteskunde – erreglamenduak prestatzeko aginduan ezartzen den bezela, kuota sistema bat edo presidentetzarako hautagaietan emakumeen presentzia ziurtatu.
	A.2 Federaziotik izendatzen diren batzarretarako estamentuetan (kirolariak, teknikariak, kirol-epaileak) %50a emakumeak eta %50a gizonak izatea.

## B. Komunikazio arloa

HELBURUA		
Berdintasunerako komunikazioa ziurtatu, hizkuntza eta irudien erabilpen sexista gaitzetsiz		
ESTRATEGIAK	SENTSIBILIZAZIOA	B.1 Berdintasunerako komunikazioaz arduratuko den pertsona bat izendatu eta bere funtzioak zehaztu.
		B.2 Trebakuntza ikastaro bat jaso (langile guztiek)
		B.3 EAEko federazio eta klubetan artean Berdintasunerako Plana hedatu.
	HIZKUNTZAREN ERABILERA	B.4 Gutunentzat, posta elektronikoentzat, prentsa-oharrentzat eta inprimakientzat komunikazio ez sexistako eredu bat ezarri.
		B.5 Araudiak aldatu
		B.6 Eguneroko jardueran erabiltzen diren dokumentuak aldatu.
	IKUSTARAZI	B.7 Web orrian, triptikoetan eta irudien galerietan emakumeak eta gizonak azaltzen diren irudi kopurua berdina izatea, modalitate honetan emakumeek duten partaidetza maila hedatu dadin.

## C. Kirol arloa

HELBURUA	
Kadete mailako zaldikoak eta amazonak fidelizatu.	
ESTRATEGIAK	C.1 Kirol esperientziak elkarri kontatzeko balioko duen topaketa (urterokoa) sortu kadete mailan.
	C.2 Denboraldiko zaldiko onena eta amazona onena saritu.

HELBURUA	
Hipikan gizonen duten kirol praktika bistaratu	
ESTRATEGIAK	C.3 Lehiaketa guztietan lehenengo postuan gelditzen diren zaldikoa eta amazona saritu.



## 4. Adierazleak

ARLOA	ESTRAT.	ADIERAZLEAK	
		BURUTU AD.	ERAGIN AD.
EGITURA	A.1	Kuota sistema sortu den ala ez.	Emakumeen presentzia EHFko Zuzendaritza-Batzordean
	A.2	Emakume zein gizonen izendapena	Emakume kopurua areagotzea federaziotik izendatutako batzarreko estamentuetan
KOMUNIKAZIOA	B.1	Izendapena ala ez	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.2	Federaziotik trebakuntza ikastaroa egin duten pertsona kopurua	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.3	Hedapena: federazio eta elkarteei egindako bidalketa kopurua. Plana hedatzeko egindako ekintzak	Egindako lanagatik jasotako errekonozimendu kopurua
	B.4	Eredua definitu den ala ez	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.5	Aldaketak egin diren ala ez	Araudietan hizkuntza ez sexistaren erabilera
	B.6	Aldaketak egin diren ala ez	Dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilera
	B.7	Irudi kopurua areagotu den ala ez	Emakumeen eta gizonen irudi kopuru bera triptikoetan eta irudien galerietan
KIROLA	C.1	Topaketa sortu den ala ez	Kadete kategorian kirol-uztea gutxitzea aurreko urteekin alderatuz
	C.2	Saria sortu den ala ez	Kadete kategorian kirol-uztea gutxitzea aurreko urteekin alderatuz
	C.3	Sari-sistema aldatu den ala ez	---



Avento Consultoria S.L. enpresak **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailerako** eginiko proiektua.

Proiektuko koordinatzailea: **Ainhoa Azurmendi**

Edozein ohar edo iradokizun egin nahi izanez gero, ondorengo posta elektronikora idatz dezakezue: **[aazurmendi@aventoconsultoria.com](mailto:aazurmendi@aventoconsultoria.com)**

Ainhoa Azurmendi



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)

Pokopandegi 11  
Oficina 012  
20018 Donostia – San Sebastián

T 943 317 038  
F 943 317 048